

BALIOEN PROPOSAMENA

BIRIKLETA biriketako minbizia pairatzen dutenentzat baliabideak eta begirunea lortzeko lan egiten duen elkarte da. Gure elkartearen izenaren jatorria oso berezia da; *Biri* (birikak) eta *kleta* (bizikleta erabiltzen dugulako gure ekintzetan) hitzen baturatik dator. Minbizi mota hau ezagutzen den larrietariko bat da, izan ere, diagnostikaturikoen %90ak ezin dio gaixotasunari aurre egin. Euskal Herri mailan ez dago biriketako gaixotasunaz arduratzen den elkarterik. Horregatik guztiagatik, erabaki dugu indarrak bildu eta minbizi mota honi merezi duen ahotsa, babesa eta garrantzia ematea.

Gure helburu nagusiak gaixotasun honekiko ikerketa bultzatzeko dirua biltzea eta gizarteko kideen artean kontzientziazioa sustatzea da. Helburu hau aurrera eramateko hainbat ekintza proposatzen ditugu.

Lehenik eta behin, BIRIKLETA EGUNA inizatiba garrantzitsuenetako bat jarriko dugu martxan. Ekainean txirrindularitza lasterketa solidarioa egitea dugu asmo gisa. Ekainean egitea pentsatu dugu, biriketako minbiziaren kolorea zuria denez eta kolore honek argitasuna transmititzen duenez udako hilabetea aukeratu beharra genuen eta zein hobeto ekaina baino, uda hasiberritan. Hilabete honetako azkenengo larunbatean, txirrindu lasterketa solidarioa egitea izango da gure egitasmoa. Etxeko txiki nahiz handientzat egongo da zuzendua. Guztiok batera larunbat ederra biziko dugu, kirola eginez eta gizarteari eta behar dutenei lagunduz.

Gipuzkoan zehar, txirrindu lasterketa bat egiteko asmoa dugu, herriz herri txirrindulariak gehitu nahiz kanporatzen joango dira, horrela, bakoitzak bere doaien arabera nahi duen zatia egiteko aukera izango du. Lasterketa Donostian hasi eta Tolosan amaituko da kosta zeharkatuz.

Bestalde, hainbat kirol elastiko kamiseta saltzea erabaki dugu, besteak beste, lasterketan erabili ahal izango dituztenak eta gero txirrindularitzan aritzen direnek ere jantzita eraman dezaketena Euskal Herri osoko lasterketetan gure elkarteari ikusgarritasuna emanaz. Dударik gabe, gure kamisetak zuriak izango dira, biriketako minbiziaren kolorea islatuz. Hori gutxi balitz, egunerokotasunean errepide guztietan bueltaka dabiltzan txirrindulariek gure

elastikoak jantzita eramanez gero, gure elkarteak ezagutaraztea lortuko dugu Euskal Herriko bazter guztietan zehar.

Azkenik, Bizum eta Paypal kontuak izango ditugu jendeak nahi duen diru kantitatea doaitzat eman dezan, beraien etxetik mugitu gabe. Ekintza guzti hauen bidez irabazitako diru guztia biriketako minbiziaren ikerketa finantziatzeko erabiliko da.